

Europako Batzordearen 2023ko Europako eskualdeen berrikuntza-rankinga

Regional Innovation
Scoreboard 2023

EUSKADIREN BILAKAERA ETA EGOERA

2023ko uztaila



Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de La Innovación



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Egungo egoera

Regional Innovation Scoreboard 2023ak (RIS 2023) berrikuntza-maila handiko eskualdeen taldean kokatzen du Euskadi; zehazki, 239 eskualdeetako #72 posizioan.

Posizio onena duen Estatuko autonomia erkidegoa da, eta berrikuntzan duen errendimendua EB-27ko batez bestekoa baino handiagoa da (% 109,8).

Beste behin ere, Europako Batzordeak “bikaintasun-polotzat” (pocket of excellence) hartzen du Euskadi, berrikuntza-maila ertaineko herrialde batean berrikuntza-maila handiko eskualdea izateagatik.

Honako hauek ditu indargune nagusi: gazteen trebakuntza maila handia, berrikuntzak produktu berrien salmentan duen eragin handia eta bizitza osoko ikaskuntza-prozesuetan dauden pertsonen ehuneko handia.

Euskadik, ETE berritzaileen ehuneko handitzeko eta berrikuntzarako jardueretan (esaterako, diseinua, marketina, jabetza intelektualaren eta industrialaren kudeaketa edo prestakuntza) egindako inbertsioa igotzeko erronkak mantentzen ditu.


Bilakaera

Euskadik bere berrikuntza-errendimendua hobetu egin du EBko batez bestekoarekin alderatuta: %103,6tik %109,8ra. Ondorioz, 93. posiziotik 72. posiziora igo da Europako 239 eskualdeetan.


Garapen hori adierazle guztien hobekuntza orokorrari esker izan da.

Euskadi, berrikuntza-maila handiko eskualdea EBean

Euskadik EB-27ko batez bestekoa baino puntuazio handiagoa lortu du (zehazki, % 109,8), eta Europako 239 eskualdeetako 72. posizioan kokatzen da. EBk “bikaintasun-polotzat” hartzen du, berrikuntza-maila ertaineko Estatu batean berrikuntza handiko eskualdea delako.



Iturria: Europako Batzordea. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2023.



Euskadi RISaren maila historikorik onenean kokatzen da

2023ko edizioan, Euskadik bere postua hobetu du EBko batez bestekoarekiko, 109,8ra iritsi arte, 100 oinarri izanda. 93. postutik 72. postura igo da Europako 239 eskualdeetan. Gainera, “berrikuntza- maila handiko” eskualdeen artean, “berrikuntza-maila handia-” azpitaldetik “berrikuntza-maila handia” azpitaldera giten du aurrera.

Euskadiren posizio erlatiboa EBrekiko RISaren edizio guztietan





Europako eskualdeak RIS 2023an

RIS posizioa	Estatua	Eskualdea	Puntuazioa 2023 (EB-27=100)	Kategoria
1	Danimarka	Hovedstaden	156,3	Berrikuntzan liderrak +
2	Finlandia	Helsinki-Uusimaa	152,1	Berrikuntzan liderrak +
3	Alemania	Oberbayern	151,5	Berrikuntzan liderrak +
4	Suedia	Stockholm	149,8	Berrikuntzan liderrak +
5	Alemania	Berlin	147,5	Berrikuntzan liderrak +
...
67	Frantzia	Auvergne - Rhône-Alpes	111,4	Berrikuntza-maila handia
68	Alemania	Detmold	111,3	Berrikuntza-maila handia
69	Norvegia	Agder og Sør-Østlandet	110,4	Berrikuntza-maila handia
70	Alemania	Düsseldorf	110,3	Berrikuntza-maila handia
71	Frantzia	Occitanie	109,9	Berrikuntza-maila handia
72	Espainia	Euskadi	109,8	Berrikuntza-maila handia
73	Alemania	Arnsberg	109,7	Berrikuntza-maila handia
74	Norvegia	Nord-Norge	109,2	Berrikuntza-maila handia
75	Erresuma Batua	Yorkshire and The Humber	107,9	Alta innovación -
76	Erresuma Batua	Scotland	107,3	Alta innovación -

Euskadi, Estatuko lehen eskualdea RIS 2023an

Autonomia erkidegoa	Puntuazioa EBrekiko (EB- 27=100)	Rankinga	Berrikuntza-kategoria
Euskadi	109,8	72	Berrikuntza-maila handia
Madrilgo Erkidegoa	106,6	80	Berrikuntza-maila handia -
Katalunia	105,9	81	Berrikuntza-maila handia -
Nafarroako Foru Erkidegoa	101,8	98	Berrikuntza-maila handia -
Valentziako Erkidegoa	94,0	121	Berrikuntza-maila ertaina +
Aragoi	83,6	147	Berrikuntza-maila ertaina
Errioxa	83,1	148	Berrikuntza-maila ertaina
Galizia	80,7	154	Berrikuntza-maila ertaina
Gaztela eta Leon	78,9	157	Berrikuntza-maila ertaina -
Kantabria	76,9	160	Berrikuntza-maila ertaina -
Asturiasko Printzerria	76,9	161	Berrikuntza-maila ertaina -
Murtziako Eskualdea	76,7	162	Berrikuntza-maila ertaina -
Balear Uharteak	71,1	171	Berrikuntza-maila ertaina -
Andaluzia	71,1	172	Berrikuntza-maila ertaina -
Gaztela-Mantxa	67,0	185	Berrikuntzan hazkunde bidean +
Extremadura	65,0	189	Berrikuntzan hazkunde bidean +
Kanariak	57,2	208	Berrikuntzan hazkunde bidean +
Melillako Hiri Autonomoa	46,3	223	Berrikuntzan hazkunde bidean
Ceutako Hiri Autonomoa	35,3	231	Berrikuntzan hazkunde bidean -

Euskadiren puntuazioa RISeko adierazle bakoitzean



Bilakaera positiboa RISeko informazio duten adierazle guztietan

RIS 2017

RIS 2019

RIS 2021

RIS 2023

RISaren edizio bakoitza taulan markatutako urte desberdinetako datuetan oinarrituta egiten da, dagokion kolorearekin.

RIS adierazlea	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	Bilakaera	Iturria
ESPARRU-BALDINTZEN ADIERAZLEAK										
Hirugarren mailako hezkuntza duten gazteak	57,6	56,2	57,3	57,5	59,4	60,8	61,7	66,0	↑	Eurostat
Bizitza osoko ikaskuntza	11,9	12,9	11,7	13,2	12,7	13,0	13,1	16,9	↑	Eurostat
INBERTSIO-ADIERAZLEAK										
Sektore publikoak gauzaturako I+G gastua	0,53	0,51	0,48	0,48	0,48	0,47	0,51	E/D	↑	Eurostat
Enpresek gauzaturako I+G gastua	1,56	1,44	1,46	1,46	1,53	1,52	1,68	E/D	↑	Eurostat
ETE-ek berrikuntzan egindako gastua, I+G ezik, fakturazioarekiko	0,22	0,22	0,27	E/D	0,29	0,43	0,36	E/D	↑	Eurostat (CIS)
ETE-ek berrikuntzan egindako gastua langileko	E/D	E/D	E/D	E/D	4,86	5,37	9,40	E/D	↑	Eurostat (CIS)
JARDUERA BERRITZAILEEN ADIERAZLEAK										
Produktuan berritzaileak diren ETEak	E/D	E/D	E/D	E/D	19,69	21,03	22,81	E/D	↑	Eurostat (CIS)
Negozio-prozesuetan berritzaileak diren ETEak	E/D	E/D	E/D	E/D	27,22	27,72	31,65	E/D	↑	Eurostat (CIS)
Beste batzuekin elkarlanean ari diren ETE berritzaileak	14,19	14,28	13,05	E/D	15,13	15,09	15,72	E/D	↑	Eurostat (CIS)
ERAGIN-ADIERAZLEAK										
Enplegua jakintza intentsiboko sektoreetan	17,4	17,0	18,4	18,0	18,1	17,7	18,8	20,1	↑	Eurostat
Enplegua ETE berritzaileetan	E/D	E/D	E/D	E/D	49,7	50,7	53,59	E/D	↑	Eurostat (CIS)
Produktu berrien salmentak ETE-etan	15,02	14,38	16,46	E/D	9,97	15,09	15,39	E/D	↑	Eurostat (CIS)

(1) 12 adierazleri buruzko informazioa baino ez dago; izan ere, gainerakoak (ekoizpen zientifikoaren, industria-babesaren, iraunkortasunaren eta digitalizazioaren adierazleak) ad-hoc ustiapenetatik datoz.

Iturria: Europako Batzordea. Regional Innovation Scoreboard (RIS); Eurostat.



Eranskinak



RIS 2023ko adierazleen definizioa (I)

Adierazlea	Deskribapena	Iturria	Urtea
Hirugarren mailako hezkuntza duten gazteak	Hirugarren mailako hezkuntza (unibertsitateko gradua edo goi-mailako LH) duten 25 eta 34 urte bitarteko biztanleen ehunekoa.	Eurostat	2021
Bizitza osoko ikaskuntza	Inkesta egin baino 4 aste lehenago hezkuntza- edo prestakuntza-ikastaroetan izena emanda dauden 25 eta 64 urte bitarteko biztanleen ehunekoa.	Eurostat	2021
Nazioarteko elkarlanean landutako argitalpen zientifikoak	Miloi biztanleko gutxienez atzerriko egilekide bat duten argitalpen zientifikoaren kopurua.	Zenbakitzailea: Scopus (Science- Metrix) Izendatzailea: Eurostat	2022
Argitalpenak %10-gehien aipatuena	Argitalpen zientifikoak argitalpen gorenaren artean-nazioartean % 10 aipatuena herrialdeko argitalpen zientifiko guztien % gisa.	Scopus (Science- Metrix)	2020
Gaitasun digitalak dituzten pertsonak	Oinarritzaileak baino trebetasun digital orokor handiagoak dituzten 16 eta 74 urte bitarteko pertsonen ehunekoa.	EB zenbatespena ¹	2021
Sektore publikoak gauzatutako I+G gastua	Administrazio publikoek eta unibertsitateek BPGaren gainean I+Gean egindako barne- gastua.	Eurostat	2020
Enpresek gauzatutako I+G gastua	Enpresek BPGaren gainean I+Gean egindako barne-gastua ² .	Eurostat	2020
ETE-ek berrikuntzan egindako gastua, I+G ezik, fakturazioarekiko	ETE-ek berrikuntzan (barneko eta kanpoko I+G kanpo utzita) egindako gastua ETE-en guztizko diru-sarrerekiko.	Eurostat (CIS)	2020
ETE-ek berrikuntzan egindako gastua langileko	Erosteko ahalmenaren parekotasunean (EAP) dauden enpresek berrikuntzan egindako gastua ETE berritzaileetako langile guztiekiko.	Eurostat (CIS)	2020
IKT arloko langile adituak	IKTetako (sistemen garapena, eragiketa eta mantentze-lanak) langile espezialisten ehunekoa langile guztiekiko.	EB zenbatespena ³	2021
Produktuan berritzaileak diren ETEak	Merkatuan ondasun edo zerbitzu berri bat sartu duten ETE-en ehunekoa.	Eurostat (CIS)	2020
Negozio-prozesuetan berritzaileak diren ETEak	Enpresan negozio-prozesu berria edo hobetua ezarri duten ETE-en ehunekoa.	Eurostat (CIS)	2020
Beste batzuekin elkarlanean ari diren ETE berritzaileak	Lankidetzan berrikuntzak egiten dituzten ETE-en ehunekoa (beste enpresa edo erakunde batzuekin berrikuntzarako lankidetzak-akordioak dituzten ETEak) ETE guztiekiko.	Eurostat (CIS)	2020

(1) Banda zabalerako sarbideari buruzko Eurostaten datua oinarri hartuta.

(2) Euskadiren kasuan, Teknologia Zentroak eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (IKZak) enpresen artean sartzen dira, pribatuak direlako; Europako homologoak, berriz, administrazio publikoaren sektorekoak dira oro har.

(3) Eurostat IKT sektoreko enpleguan oinarritzen da (JESN J: Informazioa eta komunikazioa).

Iturria: Europako Batzordea. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2023.

RIS 2023ko adierazleen definizioa (II)

Adierazlea	Deskribapena	Iturria	Urtea
Elkarlan publiko-pribatua landutako argitalpenak	Argitalpen zientifikoaren egilekidetza publiko-pribatuaren kopurua, osasun-sektore pribatua alde batera utzita (lurralde-esleipena, erakundearen helbidearen arabera).	Scopus (Science-Metrix) Eurostat	2022
PCT patenteen eskaerak	BPGaren gainean (EAPean) EPO patenteen eskaeren kopurua (lurralde-esleipena, erakunde eskatzailearen helbidearen arabera).	OECD Eurostat	2021
EBko marka komertzialen eskaerak	BPGaren gainean (EAPean) EUIPOri egindako marka komertzialen eskaeren kopurua (lurralde-esleipena, erakunde eskatzailearen helbidearen arabera).	EUIPO (Science-Metrix) Eurostat	2022
EBko diseinuen eskaerak	BPGaren gainean (EAPean) EUIPOri egindako diseinu-eskaeren kopurua (lurralde-esleipena, erakunde eskatzailearen helbidearen arabera).	EUIPO (Science-Metrix) Eurostat	2022
Enplegua jakintza intentsiboko sektoreetan ¹	Intentsitate teknologiko ertain-altuko/altuko manufaktura-sektoreetan eta ezagutza arloko zerbitzu intentsiboetan lan egiten duten pertsonen ehunekoa ¹ guztizkoarekiko.	Eurostat	2021
Enplegua ETE berritzaileetan	ETE berritzaileetan lan egiten duten pertsonen ehunekoa (bertan behera utzitako/etendako edo egiten ari diren jarduerak dituztenak barne).	Eurostat (CIS)	2020
Produktu berrien salmentak ETE-etan	ETE-en diru-sarrerak produktu berriak edo nabarmen hobetuak saltzeagatik, ETE-en guztizko diru-sarrerekiko.	Eurostat (CIS)	2020
Isuriak manufaktura-industrian	Manufaktura-sektorean material partikulatu finaren (PM2.5) bidezko atmosferarako isurketak sektorearen balio erantsiarekiko.	Europako Ingurumen Agentzia	2020

(1) Intentsitate teknologiko ertain-altuko/altuko manufaktura-sektoreak: aeronautika, elektronikak, industria kimikoa (farma barne), automobilgintza, trenbideak, makineria eta ekipamendu-ondasunak (ekipo elektrikoak, makina-erreminta, etab.), etab. Ezagutza arloko zerbitzu intentsiboak, finantza-bitartekaritza izan ezik: garrak, zerbitzu profesionalak, IKTak, I+G, etab.



Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea
Laida Bidea, 203 | 48170 Zamudio

T. +34 944 209 488 | innobasque@innobasque.eus

www.innobasque.eus